A1336

intxaurrondo

«Ipuinaren ordua» izeneko atalari emango zaio bukaera gaur arratsaldean. Lamiak taldeak ipuin bat aurkeztuko du euskaraz 9 urte bitarteko haurrentzat: «Ilehori eta hiru hartzak». 17.30etan Larrotxenen egingo duten saioa hilabete hauetako hirugarrena izango da eta oraingoz, azkena.

●

Zientzia Paranormalen VIII. astea oso arrakastatsua izan da. Hitzaldi bakoitzean 300 pertsona inguruk hartu dute parte. Kataluinia, Argentina eta Alemaniako adituak izan ditugu gure artean, parapsikologia, hipnosia eta antzeko gaiei buruz mintzatzeko. Auzoko jendeak eskatuta sortu zen duela zortzi urte aste hau eta datozen urteetan ere mantentzeko asmoa dago.

●

Santu Guztien parrokiak urteko diru laguntza bereziaren eskaera egiten die auzotar guztiei. Jakina den bezala parrokia honek bi eliza ditu bata Baso Txiki pasealekuan eta bestea Baratzategin. Bi eliz hauek berriak dira eta mailegu baten menpe daude. Eskaera, zor eta behar horiek asetzeko egiten da. Parte hartu nahi duena, elizetatik pasa daiteke edota aurrezki kutxaren kontu korrontean bere aportazioa utzi.

NAGORE IRASTORZA (TFNOA.: 285749)

Merkatu txikia, salmenta handiak

Urtean bitan egiten dute Maria Auxiliadora parrokiakoek merkatu txikia delakoa. Bertan, dendek dohainik emandako arropa, tresna eta bestelakoak salgai jartzen dituzte prezio merketan. Dirua, udako kanpaldiak finantziatzeko erabiltzen dute. Aurten oso ondo saldu dela aitortu dute, aste bukaeretan bereziki. 400 edo 500 mila pezeta jasoko dituzte salmenta hauetatik. Aurpegi alaia azaldu zuten bertako saltzaileek kamararen aurrean. Zorionak!

herrera

Mendizaleen astea

Mendi-Zaleak elkarteak IV. Mendi Astea antolatu du. Hilaren 27tik, astelehena, abenduaren 3ra bitartean mendia eta berekin erlazionatutako gaiak izango dira protagonista nagusiak.

Astelehenetik ostiralera, 20.00etatik aurrera, Herrerako Auzategian mendizale eta aditu garrantzitsuak ikusi eta entzuteko aukera izango dugu.

Astelehenean, «Euskadi-Txina» izenburupean, Ina Rufok, Txingu Arrietak, Joaquín Maizak, Iñaki Arrietak eta Patxi Lasartek duela urte batzuk, ekialdera txirrindaz egin zuten bidaia kontatuko dute 15.000 kilometrotan zehar bizi izandakoak azalduz.

Asteartean, azaroak 28, Felipe Uriartek Bagirathi III mendian egindako diapositiba emanaldia eskainiko du. Asteazkenean, mendi elkarteko partaideek egindako lanak ikusi ahal izango ditugu: Javier Mendizabal eta Jose Ramon Fernandezek Pirineo eta Alpes inguruko paisaien berri emango digute.

India-Himalaya aldera joango gara ostegunean, Kun Mendira hain zuzen, Lete eta Elosegiren eskutik.

Azkenik, ostiralean, hilak 1, Nekane Intxausti geografo-fisikoak Chamonix inguruan dauden glaziareez emango du hitzaldia.

Asteari bukaera emateko, igandean, Urbasa inguruko Urederra mendira antolatu du ibilaldia Mendi-Zaleak elkarteak. Astean zehar ikusi eta ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ederra.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)